

*Portuaren eta hiriaren arteko harremanak ez dira inoiz errazak izan, eta egun ere ez dira errazak; portua eta hiria askotan elkarri bizkar emanda bizi dira; eta Pasaia ez da salbuespena. Horren adibide argia da, harreman horiek arautzeko hitzarmenak sinatu arren, 1991ean bat eta 2006an beste bat; egun gatazka-egoerak bere horretan dirauela eta konponbide zaila duela.*

*Horregatik guztiagatik, Pasaiako Udalbatzak, errealitate horren jakitun, akordio honen bidez, Portu Agintaritzari proposatzen dio, harreman-esparru berria ezartzea; ezberdintasunak gainditzeko oinarriak finkatzearen, ondorengo agirian garatzen diren printzipioetan oinarrituta:*

# **PORTUAREN ETA HIRIAREN ARTEKO**

## **HARREMAN-ESPARRU BERRIA**

### **I. AURREKARIAK**

Udal errealitatearen aitorten politikoaren ondorioz, ordenamendu juridikoak udalerriri eskumen sorta zabala ematen dio, bere interesak kudeatzeko, eta herritarren beharrak eta nahiak asetzeko jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak emateko: segurtasuna leku publikoetan, trafikoaren antolaketa, ingurumenaren babesa, osasun publikoaren babesa, ur-hornidura, estolderia, bidaiarien garraio publikoa, kultura, kirola eta, zalantzarik gabe, portuaren eta herriaren arteko harremanak zehazteko garaian garrantzitsuena dena: hirigintzaren arloko eskumena.

Halaber, portuei buruzko legeriak interes orokorreko portuak instalazio estrategikotzat jotzen ditu, eta horien garrantzia inguruko lurralde mugatutik askoz ere haratago doa, horietan itsas-merkataritzako jarduerak egiten direlako, eta merkataritza-eragineko eremuak lurralde bati baino gehiagori eragiten diolako. Horregatik, portu agintaritzek eskumena dute portuko jabari publikoa kudeatzeko, eta portuko garraioarekin eta zerbitzuekin lotutako itsasoko eta lurreko operazioak egiteko, baimentzeko eta kontrolatzeko; horien araubide juridikoa zuzenbide publikoa izanik; hori guztia, interes orokorra ziurtatuz egin beharrekoa.

Hala ere, errealitate juridiko-politiko berri hori ez da erabat ezarri, portuaren eta hiriaren arteko harremanei dagokienez; izan ere, oraindik aurreko errealitatearen arrasto batzuk geratzen dira; eta portua eta hiria elkarri bizkar emanda bizitzeaz gain, portuaren errealitatea gailentzen da udalerririaren gaintik. Horren adibide argia da, harreman horiek arautzeko hitzarmenak sinatu arren, 1991ean bat eta 2006an beste bat; egun gatazka-

egoerak bere horretan dirauela eta konponbide zaila duela. Hitzarmen honen helburua da gatazka horiek gainditzeko oinarriak ezartzea.

Ez da une egokia portuaren eta herriaren arteko harremanen gaur egungo egoeraren jatorria eta arrazoiak aztertzeko, ez litzateke onuragarria izango; era berean, ez da egokia batzuei zein besteei erantzukizunak leporatzen hasia.

Biek, portua eta herria, gara egungo deskoordinazioaren erantzuleak; era berean, biek dugu erantzukizuna, egoera hori gainditi eta bi erakundeen arteko koordinazio egokia lortzeko tresnak eskuratzeko; betiere, erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak eta helburuak errespetatuz. Jarduteko garaia da, guztien artean jarduteko garaia, eskumen horiei zor zaien leialtasunez eta errespetuz. Alderdi sinatzaileak prest daude, haien erantzukizuna onartu, eta lan egiteko; ordezkatzeko ditugun eta zerbitzua ematen diegun herritarren, langileen eta enpresen arazoak konpontzeko.

## **II. HITZARMENAREN OINARRI OROKORRAK**

Herritarren interesak babestea, elkarrizketarako eta elkarbizitzarako gune bat sortzea; horixe da partekatzen dugun lehenengo helburua. Hiri-bilbeak eta portu-bilbeak elkarri aurre egiteari uzteko gune bat eraikitzeko borondatea daukagu; gune horretan lurraldeak ez du mugarik izango; portua eta hiria udalerriaren zati bereizezina izango dira. Herritarrak ez dira portuari bizkar emanda bizi; haiek portuaren bitartez komunikatu nahi dute. Herritarrak harro daude beren ondareaz, inguruaz, lurraldeaz, nortasunaz eta, nola ez, portuaz. Pasaia eta portua existituko dira, neurri batean, Pasaitarren hala nahi dutelako.

Lurraldea era orekatuan antolatu behar dugu; portuko jarduerak eta inguruneak bizikide izan behar dute; herriak portuaren parte izan behar du. Horrela bakarrik lortuko dugu azken hamarkadetako gatazka, sumina, narriadura eta etsipena gainditzea.

Pasaiako badia berroneratzeko ezinbestekoa da erakundeen arteko konpromiso bateratua, eta hitzarmen hau sinatzen duten aldeek badakite

hori; beraz, erakundeek, zeinek bere eskumenen eremuan, hitzematzen dute lurraldeak eta herritarrek behar duten prozesu hau garatuko dutela.

Harreman-esparru berria ezartzea, non laguntza, errespetua eta elkarlana izango diren helburu nagusia; beraz, hitzarmen honetan jasotzea erabaki dugu. Lan honen erpina badiaren berroneratze sozio ekonomikoa da; eta lantegi horretan funtsezkoak dira, noski, portuaren lurzoruak eta portuaren jarduerak; baina ezinbestekoa da lan sistematikoa eta jarraitua egitea, prozesua abian jar dadin, eta hura geraraziko duen oztoporik sor ez dadin.

Berriz ere diogu: berroneratze horretarako, beharrezkoa da herriak portua eta portuaren jarduera guztiz barneratuta izatea, eta portuak bere jarduera inguratzen duen lurraldeari lotuta dagoela onartzea; herritarrek izan behar dute garapen osoaren erdigunea, bai enpleguaren ikuspuntutik, eta bai bizi-kalitatearen ikuspegitik.

Hain zuzen ere, Pasaiaiko udalerrria portuari lotuta sortu zen; izan ere, portuaren gaineko jurisdikzioa eman nahi zitzaiolako sortu zen Pasaiaiko udalerrria gaur egun ulertzen dugun moduan.

Zalantzarik gabe, portua lurraldearen zati da; hala izan da mendeetan; beraz, ezin da porturik gabeko badia ulertu; ezinezkoa da berroneratzean pentsatzea, prozesu horretan portuaren jarduera sartu gabe.

200 urte horietan portuaren eta herriaren arteko harremanak errealitate ezberdinak ezagutu ditu, une bakoitzeko araubide juridiko eta politikoaren arabera; baina horietan guztietan errealitateari bizkar emanda bizi izan gara. Egoera horrekin bukatu nahi dugu, izan ere, elkarbizitza horrek, sortzen dituen arazoak konpondu beharrean, arazo horiek indartzen ditu.

Portua, bere lurrak eta bere jarduera berroneratze-prozesu horren zati inportantea dira. Bi erakundeak horren jakitun dira, eta berroneratzearen oinarrizko helburuekin bat datozen lurzoruaren erabilerak ahalbidetuko dituzte; berroneratze soziala, ekonomikoa eta urbanistikoa izango da; eta

helburu nagusia izango da, herritarren bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzea.

Integrazio horretarako, lehentasunezko helburua da portuaren eta herriaren arteko elkarrizketa-guneak eraikitzea; herritarrek portuaren jarduera jarrera baikorrarekin onar dezan; portuak herritarrena izaten jarrai dezan; eta portuak, horko arduradunek, operatzaileek eta langileek barneratu dezaten, integrazio horrek haien interesak ahalbidetzen dituela; adibidez, lonjaren kasua: jarduerak hiri-erabilera onartzen du, eta horrek komunitate horretan elkarrizketa ahalbidetzen du.

Bananduta egon izan diren bi kulturen (herri-kultura eta itsas-kultura) arteko elkarbizitza lortu nahi izateak ere bultzatu gaitu akordio hau adostera. Portuko espazio publikoa eta bertakoa, elkarbizitzarako lekua da, baina baita gatazkarako eta ezberdintasunerako lekua ere. Elkarbizitza positiboa lortuko dugu; zailtasunak identifikatu eta gaindituko ditugu.

Bi erakundeen arteko elkarlan jarraituak izan behar du gure konpromisoaren ardatza; eta horretarako talde iraunkor bat eratuko dugu, bi erakundeek izendatutako pertsonekin; eta helburu berak dauzkaten beste erakunde batzuk ere gonbidatuko ditugu bertan parte hartzera.

Hitzarmen hau garatzeko garaian proposatzen diren gaiak, bai hitzarmenean bertan jasotakoek eta bai elkarlan horretan sortzen direnek, bai epe luzekoek eta bai epe motzeko behin-behinekoek, espazio eta zerbitzuen kudeaketa osoa eta koherentea izan behar dute helburu, espazio horiek udal jabarikoak izan, nahiz portuaren jabarikoak izan.

Bi erakundeek uste dute berroneratze-prozesu hau eraikuntza-lan bat dela, eta lantegi horretan herritarrek eurek hitz egin behar dutela, eta ez dutela behar inor haien izenean aritzerik. Jakin badakigu, prozesu honen helburu diren herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela, haiek euren prozesutzat har dezaten. Beraz, parte-hartze hori bermatzeko prozedurak jarriko ditugu abian.